



OÑATIKO LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA (LSNE)

Sozietatearen izena

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea Fundazioa

IFK

G20200424

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 1989ko apirilaren 25ean eratu zen. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, ["Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea" onartzen, sailkatzen eta Irakaskuntzako Fundazio Pribatuen Erregistroan inskribatzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Kabinete Teknikoko zuzendariaren 1990eko martxoaren 21eko Ebazpena betez.](#)

Sail-atxikipena

Herri Administrazioa eta Justizia.

EJSN

8559 Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza.

Fundazioaren xedea eta helburua

Eratu zenetik hona, bere gizarte-helburu eta jarduera nagusia izan da Lege Soziologiaren arloko unean uneko ikerketetan aurrera egitea eztabaida, azterketa eta konparaketaren bidez, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakundeekin harremanetan, ahalik eta integraziorik eta loturarik handiena lortzeko Euskal Herriko substratu psikosozialarekin, kulturarekin eta gizarte-harremanen sistemarekin.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak.

Fundazio-zuzkidura


3.005 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

EAEko Administrazio Orokorra % 100

Patronatuaren osaera

EAEko Administrazio Orokorra	% 50,00
Association Internationale de Sociologie/Research Committee on Sociology of Law (RCSL)	% 50,00



2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	534.180 €
Ondare garbia	419.237 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	99.102 €
Batez besteko langile-kopurua	10

Sozietatearen helbidea

Unibertsitate Zaharra z/g - 28. posta-kutxa, 20560 Oñati (Gipuzkoa).

Webgunea

www.iisj.net